



INAKI URANGA

**Agurra eta omenaldia Takolori.** Joxe Urbieta *Takolo* mendizale zenaren aldeko hileta elizkizun jendetsua izan zen atzo eguerdian, Azepeitian (Gipuzkoa). Herritar eta euskal mendizaletasuneko ordezkari ugari bildu zen Takolori agurra ematera eta omenaldia egitera. Han ziren Josu Bereziartua, Benantxio Irueta, Alberto Iñurrategi, Juanito Oiarzabal, Lorente, Kike de Pablo, Pako Iriondo... Roman Sudupe, Gipuzkoako diputatu nagusia ere han zen, laguna baitzuen Takolo. «Kontrariarik ez zuen gizona», horixe esan zuen meza eman zuen apaizak Takolori buruz. Goizeko bederatzietatik Lagun Onak Mendi Bazkunan egon zen gorpua, eta hara ere erruz hurbildu zen jendea. Handik elkarteko lagunek eraman zuten hilkutxa parrokiara (argazkian, elkartetik irtetzen); hilerrira ere bizkarean eraman zuten. Takolo larunbat goizean hil zen, seguruenik bihotzekoak jota (autopsiaren emaitzarik ez dago oraindik).

**Txirrindularitza** ♦ Polikeviciutek irabazi zuen atzo Tourrean

# Erlojupekoaren zain

*Somarribak 11 segundoko aldeari eusten dio*

Erredakzioa / Donostia

BESTE egun bat gainditu du Joane Somarribak Parisko bidean. Atzo Rasa Polikeviciute lituaniarrek irabazi zuen Langeac eta Vernoux arteko etapa, baina ez da aldaketa nabarmenik izan sailkapen nagusiko postuetan. Hori bai, orain Geraldine Loewenguth frantziarra da hirugarren postuan, 1:09ra. Izan ere, Polikeviciuterekin batera Bubnenkova eta frantziarra batera iritsi baitziren tropeletik hanka eginda, 4:38ko aldearekin.

## Biharko erlojupekoa, erabakigarria

Gaur Vaujanyko gainean ainituko da etapa, eta lehia izan daiteke onenen artean, baina azken garaipenerako faboritoak biharko erlojupekoaren zain daude. 25,5 kilometro egin beharko dituzte, eta hor lortutako aldeak erabakigarriak izan daitezke Parisera garaile iristeko.



Joane Somarribak lider jarraitzen du Frantziako Tourrean.

### Frantziako Tourra

#### Bederatzigarren etapa

1. R. Polikeviciute (Lit)	3:19:19
2. S. Bubnenkova (Erru)	d.b.
3. G. Loewenguth (Fra)	d.b.
4. Z. Zabirowa (Erru)	4:38ra
5. Z. Stahurskaia (Blr)	d.b.

#### Sailkapen nagusia

1. J. Somarriba (Eus)	29:28:25
2. E. Pucinskaite (Lit)	11ra
3. G. Loewenguth (Fra)	1:09ra
4. Z. Zabirowa (Erru)	1:36ra
5. S. Bubnenkova (Erru)	2:15era

## Teteriukek etapa eta lidergoa eskuratu ditu Galizian

Erredakzioa / Donostia  
HELMUGARAKO lau kilometro falta zirela jo zuen erasoia Andrei Teteriukek, eta inor ez hura harrapatzeko gauza izan. Gainera, sailkapen nagusian lider jarri da, lortutako 32 segundoko aldeari esker. Etapa abiatu zenetik erasoaldiak etengabeak izan ziren, eta euskal txirrindulariak behin eta berriro saiatu ziren, baina Teteriukek asmatu zuen noiz zen une aproposena. Gaur hirugarren etapa jokatu da, Santiago eta A Fonsagrada artean. Bi mendate gainditu beharko dituzte.

### Galiziako Itzulia

#### Bigarren etapa

1. A. Teteriuk (Liq)	3:45:42
2. D. Etxebarria (ONCE)	31ra
3. I. Pugaci (Sae)	d.b.
4. S. Casagrande (Ale)	d.b.
5. U. Etxebarria (Eus)	d.b.

#### Sailkapen nagusia

1. A. Teteriuk (Liq)	5:59:09
2. D. Etxebarria (ONCE)	30era
3. M. Garrido (Fuen)	31ra
4. J. M. Mercado (Vit)	d.b.
5. A. Spezialetti (Liq)	34ra

## laburrean

### TXIRRINDULARITZA

■ **Johan Museeuw hobeto dagoela diote medikuek**  
ORAINDIK egoera larrian aurkitzen bada ere, Johan Museeuw hobera egin du azken orduotan. Buruan hartutako kolpeak odoljarioa eragin zion garunean, eta medikuak hori kontrolatu ezinik egon dira, baina atzo goizean baikorrago agertu ziren, belgikararren egoera egonkortu egin baita.

■ **Pascal Richardek ezingo du Atlantan lortutako urrea defenditu**

PASCAL RICHARDEK Atlantan lortutako urrea defenditzeko aukera nahi zuen, baina Suitzako hautatzaileak ez du Sydneyen izango den taldean sartu. Camenzind, Dufaux, Gianeti, Zberg eta Zulle izango dira Suitzako taldean.

### FUTBOLA

■ **Afizionatu mailako hiru futbolari hil dira Alemanian astebetean**

ALEMANIAN kezkatuta daude hiru heriotza hauekin. Hirurak Laugarren eta Bosgarren Mailakoak ziren —16, 30 eta 42 urtekoak—, eta denak ere ekialdeko Hesse estatukoak. Autopsien emaitzak izan arte, inork ez du arrazoirik eman nahi.

### ATLETISMOA

■ **Sotomayorrek ezin izan zuen atzo Sydneyrako marka lortu, irabazi arren**

URTEBETEZ zigortuta egon ondoren, lehen lehia-keta zuen atzo Sotomayorrek Frantziako Montauban hirian. Kubatarrak 2,28 metroko jauziarekin irabazi zuen, baina ez zuen Sydneyrako marka egin (2,30 eskatzen zen). Dena den, izango ditu aukera gehiago, datozen asteotan Europan zenbait lehiaketatan parte hartzeko asmoa baitu.

### MENDIA

■ **Lau lagun hil dira Mont Blancen, harri jausi baten ondorioz**

HIRU alemaniar eta frantziar bat hil ziren atzo Mont Blancen eta beste bost lagun zauritu, harri jausi baten ondorioz. Mendizaleak Tour Ronde bide-tik ari ziren igotzen.